

EUSKO ABERTZALEAK-NACIONALISTAS VASCOS (EAJ-PNV) ETA SOCIALISTAS VASCOS-EUSKAL SOZIALISTAK (PSE-EE) BATZARKIDE TALDEEK GIPUZKOAKO ALDUNDIA KOALIZIOAN GOBERNATZEKO AKODIOA

Akordiozko Gipuzkoaren alde

Joan den maiatzaren 24an izan ziren foru hauteskundeetan, Gipuzkoako gizartearen gehiengoak gobernuetako programak eta lehentasunak ez ezik politika egiteko modua ere aldatzeko desioa azaldu zuen. Izan ere, azken lau urteok ezaugarri hauek izan dituzte: erakundeen paralisia, frentismoa, gutxiengoaren inposaketa eta gure baliabide eta ahalmen ekonomikoen hondamena.

Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Euskadiko Alderdi Sozialistak Batzar Nagusietara beren hautagaitzetan aurkeztu dituzten hauteskunde programen bateragarritasuna aztertu eta erabaki dute garaia iritsi dela Gipuzkoan etapa berri bati ekiteko eta Lurraldeak dituen arazo nagusiei konponbideak eskaintzeko. EAJ-PNVk eta PSE-EEK lehentasun hauek ipintzen ditugu orain hasten den legegintzaldi honetarako: langabezia, aberastasuna sortzea, gizarte politikari eustea, hiri hondakinen gestioa, garraio publikoa, gure errepideen finantzaketa eta kulturaren sustapena.

Dena den, desafio horiei guztiei ausardiaz eta irmotasunez heltzeak eskatzen du gobernu egonkorra eta berreskuratu beharrean gauden akordioaren kultura edukitzea. Tradizio ideologiko desberdinetatik gatz eta erabat kontziente gara gure gizartean dagoen aniztasun politikoaz; baina, gogo bera dugu: Gipuzkoa oparoa, lehiakorra eta solidarioa eraikitzea. Eta argi dugu, baita ere, gehiago dela batzen gaituena banatzen gaituena baino eta aurre egin beharko diegun gestioko erronketako batzuk ezin direla utzi gehiago luzatzen, bere horretan.

Gipuzkoak akordioa eta elkar ulertzea oinarri dituen garai berri bati ekin nahi dio, atzean utziz gure burua erosotasunean ipinita daramazkigun dinamikak, bizikidetzaren demokratikoa asentatzearen aldeko apustua egiteko, giza eskubideak zintzotasunez defendatuz eta terrorismoaren eta indarkeriaren biktima guztien memoriarekiko konpromisoa hartuz. EAJ-PNV eta PSE-EEKook agintzen dugu bake eta bizikidetzaren kultura baten alde lan egingo dugula, argi eta garbi, indarkeriaren eta intolerantziaren zauriak ixten laguntzeko.

Akordioaren etapa berri bat, gure autogobernu sistema bultzatzeko eta indartzeko, erakunde demokratikoen konfiantzan oinarrituta. Bi alderdi politikook ditugun posizio legitimoak eta desberdinak errespetatuz, oso argi daukagu bizikidetzaren esparruek, aldatzeko ematen dituzten aukerekin, ardatz bera dutela, baldin eta aurrerapen ekonomikoa eta hiritarren ongizatea bermatzera bideratzen badira.

Gure asmoa da erakundeei egonkortasuna ematea eta, hala, gehiengo zabalak eta sendoak bermatzea, konpondu beharreko arazoak konpontzeko. Eta etapa berri honetan, ez da harrotasunik izango eta erakundeetatik politika demokratikoa bere onera ekartzeko ahalegina aldarrikatuko dugu. Apalak izanik, baina aldi berean gertutasuna eta hurbiltasuna azalduz. Aldarrikatuko dugu Gipuzkoako Foru Aldundia gertukoa, hurbilekoa eta apala izatea, funtsezko printzipio hauek oinarri hartuz: austeritatea, gobernu ona eta entzuteko gaitasuna eta, gainera, Gipuzkoako aniztasuna aitortzea eta gestionatzea.

EAJ-PNVk eta PSE-EEK nahi duguna da praktikan ipintzea elkar ulertze dinamika berri bat, hain zuzen ere Lurraldea suspertzea, Lurraldeko enpresa sarea indarberritzea, Lurraldearen ekonomia produktiboa dinamizatzea eta parametro europarretan kokatzen gaituen gizarte kohesioaren ereduari eustea ahalbidetuko digun dinamika. Horretarako, agintzen dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak etengabeko elkarrizketaren tresna bultzatuko duela, eta baita itunaren kultura historikoa ere, diagnostikoak egiterakoan eta konponbide errealistak prestatzerakoan. Agintzen dugu, halaber, gure gain hartuko dugula Lurraldeko eragile ekonomiko eta sozialekiko konpromisoa eta argi eta garbi lagunduko diegula gizarteko sektore behartsuenei, eskualde hondatuenei eta pobreak, langabeziak, bazterketak edo krisi ekonomikoaren ondorioek gehien erasan diezaiekete.

Bi alderdiok konplizitateak eta laguntzak bilatzearen aldeko apustua egiten dugu, gure Lurraldea modernizatzeke aurre egin beharko diegun erroka estrategiko garrantzitsuei ekiteko. Ezin ditugu etorkizuneko aukera gehiago galdu. Urte gehiegitxo pasa ditugu debate zirkularretan eta irtenbiderik gabeko eztabaidetan harrapatuta, halako debate eta eztabaidek aplikatu daitezkeen soluzioen bilaketa luzatu baino ez baitute egiten. Hiritarrek dituzten arazoek erakundeei behartzen diete konponbideak bilatzera, eta ez alderdi politikoen mesederako korapiloetan katigatzera.

EKONOMIAREN ETA ENPLEGUAREN SUSTAPENA

Gipuzkoako Foru Aldundiak orientazio ekonomikoa eta estrategikoa emango dizkio Lurraldeari. Oso argi markatuko die bidea erroka kolektiboek; norabide berean ipiniko dituen enpresak, garapen agentziak, zentro teknologikoak, unibertsitateak, erakundeak, elkarteak, ekintzaileak eta entitate finantzarioak. Izan ere, Gipuzkoak behar du denok jakitea norantz goazen eta non dauden negoziarako errokak eta aukerak, behar du arraunean denok batera eta norabide berean egitea.

Irtengo den gobernuak ekonomiaren eta enpleguaren sustapenarekiko azaldu duen utzikeria eta interesik eza ikusita, Batzarretako EAJ eta PSE taldeek foru arauko proiektu bana aurkeztu zituzten eta gehiengoz onartuak izan ziren BBNetan.

Dena den, behin gobernu berria eratuta —orain bai, ekonomiaren eta enpleguaren sustapenak erabateko lehentasuna izango du—, foru arau haien ordezkariak diren tresna operatiboak prestatu beharko dira, betiere lortu nahi diren helburuetara ondoen moldatzen diren tresnak badira, malgutasun eta eraginkortasun handiagoa bermatzeko. Beraz, konpromiso hauek hartzen ditugu:

1. Gipuzkoako enplegua eta ekonomia indarberritzeko Aholku Batzordea eratuko dugu. Aholku organo hori iraunkorra izango da eta bertan parte hartuko dute sindikatuek, enpresarien elkarteek, adituek, unibertsitate irakasleek, gizarte ekonomiaren ordezkariak, eskualdeetako garapen agentzietako ordezkariak, gazteen elkarteak, ekintzaile elkarteak...

2. Jarduera plan zorrotz bat onartuko dugu, zeinaren bidez konpromisoa hartuko den urtero 50 milioi euroko partida bat ekonomia eta enplegua sustatzera bideratzeko, indarrean dauden ekonomi eta enplegu sustapenerako foru arauen ordezkariak; horien indargabetu egin beharko dira, hortaz. Plana Eusko Jaurlaritzarekin eta gainerako erakundeekin batera diseinatu eta gauzatu da, garrantzi berezia emango zaielarik Gipuzkoak dituen berezitasunei, eta honako hauek izango dira planaren jardunbideak:

i. Produktu eta zerbitzu berriak eta enpresa berriak.

ii. Internazionalizazioa eta merkatu berriak.

iii. Enplegua gazte kalifikatuentzat eta luzaroko langabeentzat.

iv. Lehiakortasunari laguntzen dioten azpiegiturak.

3. Sarbideak programa martxan jarriko dugu berriro. Programa antolatua dago Gipuzkoan enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonentzat, arreta berezia ipiniz 45 urtez goikoei, hiru lerro hauek oinarri hartuz: prestakuntza, berrikuntza eta autoenplegua.

4. Erakundeen arteko koordinaziorako eta lankidetzarako dinamika berriak hasiko ditugu, Euskal Gazteen Bermerako Programaren barruan, Europako Batasuneko Kontseiluak 2013ko apirilaren 22an emandako Gomendioa betetzeko, internazionalizatzeko beken bidez (prestakuntza atzerrian praktikak eginez jasotzeko); lehen lan esperientziari buruzko *lehen aukera* programa, praktika kontratuak atzerriko enpresa gipuzkoarretan, prestakuntza-praktika kontratuak garatzeko bidean dauden sektoreetan eta langabeziako prestazioak kapitalizatzeko programekin. Era berean, estrategia bat proposatuko dugu, atzerrian lan esperientzia jakin bat izan eta Gipuzkoara itzultzen diren gazteei kalitatezko enplegua bermatzeko.

5. Neurri bereziak planteatuko ditugu, hiriak berronertzeko eta lur jota dauden zonak ekonomikoki indarberritzeko, arreta berezia Pasaialdean jarri. Jarduera horien helburua izango da lurralde eta eskualde oreka handiagoa lortzea Gipuzkoako zonen artean, garapen ekonomiko iraunkor baten arabera betiere. Ahaleginak egingo ditugu krisiaren eragina gehien nozitzen ari diren zonei eragin hori arintzeko eta, horretarako, jarduera ekonomiko berriak diseinatu ditugu, baldin eta halako jarduerak enplegu sortzaileak badira, ingurumen aldetik egokiak badira, ezagutza sendoa eskatzen badute eta industriarekin eta zerbitzuekin oso lotutakoak badira.

6. Langileen partaidetza sustatuko dugu enpresetan:

- Programa bat prestatuko dugu, enpresetako gestioan gardentasuna eta langileen parte-hartzea sustatzeko.
- Programa bat prestatuko dugu, langileen parte-hartzea sustatzeko enpresetako kapitalean, proiektuaren biziraupena eta lurraldearekiko lotura bermatzeko.
- Gizarte ekonomia sustatuko dugu.

7. Nano eta bioteknologia arloetan, teknologia transferitzeko agentzia koordinatu bat ipiniko dugu martxan, zentro teknologikoei eta ikerkuntza zentroein beren jarduera produktu eta enpresa berriak sortzera orientatzen laguntzeko.

ZERGA ETA FINANTZA POLITIKA

Kontzertu Ekonomikoari buruz

Kontzertu Ekonomikoa gure autogobernuaren funtsezko erakundea da. Alderdi politiko sinatzaileek agintzen dute helburu hauekin egingo dutela lan Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru organoetatik: Kontzertu Ekonomikoa politikoki, juridikoki eta sozialki defendatzen jarraitzea eta, era berean, erakunde horrek zergen arloan ematen digun arautze eta gestionatze ahalmena Gipuzkoako enpleguaren, ongizatearen eta garapen ekonomikoaren mesedetan jartzea.

Gainera, adierazten dute gaitzetsi egiten dutela Kupoaren aldeetako batek bere aldetik eta adostu gabe aldatzeko egin lezakeen edozein saiakera, Euskal Autonomia Erkidegoko finantza baliabideak murriztera bideratzen den edozein saiakera alegia.

Zerga politikari buruz

Alderdi politiko sinatzaileek berretsi egiten dituzte Euskadi Modernoagoa, Solidarioagoa eta Lehiakorragoa lortzeko 2013ko iraileko Akordioaren babesean sinatu dituzten akordioak zerga arloan. Bide horretatik, agintzen dute itun horretan aurreikusten diren puntu guztiak eta bakoitza beteko dutela iruzurrari eta zerga ihesari dagokienez. EAJ-PNV eta PSE-EE koalizioak erabat lehenetsiko du iruzur fiskalaren aurkako

borroka Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gobernuan eta borroka horretarako izendatuko den aurrekontuko partida ekonomikoak %10 igoko dira. Era berean, ahaleginak egingo dira gainerako ogasun administrazioetako datu fiskalak hobeto trukatzeko: euskal autonomia erkidegoko gainerako ogasunak, Nafarroako foru ogasuna eta Estatuko zerga agentzia.

Era berean, alderdi politiko sinatzaileok begi onez ikusten dugu hiru Lurralde Historikoek onartutako Akordio horretatik eratorritako erreforma fiskala, hain zuzen ere Pertsona Fisikoen gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga aldatu zituen erreforma, 2014ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zena.

Erreformak zerga sistema bidezkoagoa eta progresiboagoa ahalbidetu du Euskadin, asko harmonizatu da sistema, eta, horri esker, foru ogasunek diru gehiago bildu ahal izango dute, zerbitzua publikoei eutsi ahal izateko, bereziki Ongizate Estatua definitzen duten zerbitzuak. Alde horretatik, alderdi politiko sinatzaileek adierazten dute beren borondatea printzipio hauetan sakontzea dela: progresibitatea, berdintasuna, bidezkotasuna, ahal ekonomikoa, zerga justizia, ez konfiskatzea. Hori guztia bi elementu hauek uztartuz beteko da: Ongizate Estatua finantzatzeko behar diren zerga kopurua bildu beharra eta sustapen ekonomikorako neurriak batetik, eta zerga politika bat diseinatzea bestetik, hazkunde ekonomikoaren ondorio negatiboak saihesteko.

Gaur egun, bada zerga figura bat harmonizatu gabe dagoena Euskal Autonomia Erkidegoaren mailan: pertsona fisikoen ondarea kargatzen duen zerga. Zerga hori nahiko antzekoa da Araban eta Bizkaian; baina, Gipuzkoako araudia desberdina da hainbat puntutan, zehatzago esanda negozio familiarraren parte diren enpresako elementuen edo partaidetzen inguruko exentzioak (enpresa familiarraren exentzioa) ezabatzeari dagokionez, %75eko hobaria ezartzen delarik, eta “babes fiskala” esaten zaiona eta zerga tipoa (Gipuzkoan txikiagoak dira, Araban eta Bizkaian baino) ezabatzeari dagokionez.

Alderdi politiko sinatzaileok uste dugu zerga sistema bat justua izango bada, ezin dela inolaz ere banandu progresibitate printzipiotik eta ezta berdintasun printzipiotik ere. Printzipio horiek zerikusi zuena dute ahalmen ekonomikoaren printzipioarekin. Alde horretatik, eta Auzitegi Konstituzionalak adierazi duen moduan, *‘Gastu publikoei aurre egiteko ahalmen ekonomikoa izateak exigentzia logiko bat nor bere gain hartzea esan nahi du; aberastasuna, dagoen lekuan bilatzera behartzen duen exigentzia hain zuzen ere’* (AKE 27/1981).

Hori guztia hala izan dadin, beharrezkoa da Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko abenduaren 18ko 10/2012 Zerga (aurrerantzean, Ondare Zerga) aldatzea, bermatu dadin:

- Lurralde Historikoen arteko zergak bateratzea.
- Zergaren progresibitatea.
- Ez zigortzea jarduera ekonomikoa sortzea.
- Ondasun higiezinaren balorazio justua eta bidezkoa.

Ondareari buruzko Zerga aldatzeko, foru arauko ondorengo artikulua hauek aldatuko dira:

Tarifa:

Zerga aldatu aurretik zegoen antzeko tarifa ezarriko da (Arabian gaur egun dutenaren antzekoa), tarte gehiagorekin eta tasa marjinal handiagoarekin (2,5); era berean, tarteetako zenbatekoak jaitsiko dira, batez besteko tasak handiagoak izan daitezzen.

Jarduera ekonomikoen exentzioak:

6. art. Pertsona fisikoek beren jarduera ekonomikoak garatzeko behar dituzten ondasunei eta eskubideei buruzko exentzioa ezartzea, Arabako eta Bizkaiko foru arauetako 5. artikulua bide beretik, Bizkaiko eta Arabako foru arauetako 6. artikuluan halako jardueretarako behar diren ondasunei buruz aipatzen diren eskakizunak jasoz.

Ezabatzea foru arauko 27. artikulua, jarduera ekonomikoetarako behar diren elementuentzako hobariak jasotzen dituen hain zuzen.

Ondareari buruzko Zergaren eta PFEZaren kuota osoentzako mugak ez aplikatzeari buruz (“babes fiskala”)

Behin enpresa familiar eta produktiboagatik (jarduera ekonomikoak eta zenbait entitatetan akzioak eta partaidetzak izateagatik) exentzioa ezarrita (6. art.), bere horretan mantenduko da “babes fiskala” esaten zaiona aktibo finantzarioak dituzten hiritarrei ez aplikatzea, ondare galera izaten duten ekitaldi fiskaletan izan ezik.

Ondasun higiezinaren balorazioa:

Balore bakar bat ezartzea ondasun higiezinak baloratzeko eta, beraz, alde batera uztea zalantzak sortzeaz gain bidezkoak ez diren alternatibak aplikatzea (ikus. Foru arauko XX. art.). Balorazio bakar bat aurreikusten duen sistema ezartzea: balorazio katastrala.

Ondareari buruzko Zergaren erreforma hau xehetasunez aztertuko da foru ogasuneko teknikariek batera, zenbaterainoko eraginkortasun duen zehazteko.

Gastu publikoa

Hazienda Publikoa ez da bakarrik zerga politika, hau da, diru sarreraren inguruko politika. Alde horretatik, zerga sistema bat justua izango da bildutako dirua ondo gastatzen bada: hiritarren dirua xahutzen ez bada, baliabide publikoak egoki erabiltzen badira eta gastu publikoa efizientzia eta ekonomia irizpideen arabera programatzen eta erabiltzen bada.

Alderdi politiko sinatzaileok agintzen dugu printzipio horietan oinarrituko dugula Gipuzkoako Foru Aldundiak gauzatuko duen gastuei buruzko politika. Konpromiso hori beteko dela bermatzeko, Foru Aldundiak urtero-urtero gastuei buruzko politiken ebaluazio prozesu bat burutuko du eta Batzar Nagusiei emango die prozesu horretako emaitzen berri.

Erakundeen finantzazioa

Gure erakundeen (Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta udalen) barruko sistema finantzarioari dagokionez, alderdi politiko sinatzaileok ondorengo printzipio hauek defendatzen ditugu:

LEHENA: lurralde historikoek Euskadiko aurrekontu gastuetarako egin behar izaten dituzten ekarpenak modu justuan banatzea bermatzea.

Kontuan izan beharko da gaur egungo eskumenen banaketa Euskadi osoko erakundeen eta lurralde historikoetako foru organoen artean eta gastuen inguruko lehentasun moduan ipiniko dira Ongizate Estatua definitzen duten politikak eta Euskadiko jarduera ekonomikoa sustatzera eta enpresen sarea eta enplegua indartzera bideratutako politikak.

BIGARRENA: udalen finantzaketari dagokionez, alderdi politiko sinatzaileok agintzen dugu elkarrizketarako mahai instituzional bat eratuko dugula Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta EUDELen artean, Gipuzkoako udalen finantzaketa aztertzeko eta finantzaketa hori hobetzeko eta egokitzeko aldaketak proposatzeko.

HONDAKINEN GESTIOARI BURUZKO POLITIKA

Gaur egungo foru gobernuak eginahalak eta bi egin ditu aurreko legegintzako hondakinei buruzko plana eta martxan jarri ziren tramite administratibo guztiak saihesteko:

- Bere planteamendua egin du, inolako oinarri tekniko zorrotzik gabe, BBNetatik pasa gabe eta eragin juridikorik gabe.
- Hauteskunde eguna baino egun batzuk lehenago, “bere” foru plana onartu du Gobernu Kontseiluan. Dena den, indarrean dagoen foru araua nagusitzen da, bertan sartzen direlarik bai Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra (GHHKPO) (2002) eta bai Plana Garatzeko Dokumentua.
- Indarrean zegoen kontratua suntsitu zuen —suntsipena auzitegietan dago eta haren ondorio juridikoak aztertu behar dira— eta kalte-ordainetan ordaindu zituen 11 milioi euro + milioi 1 euro ingeniariizei.
- Judizializatzearekin BEIren finantzaketa baldintzatu du.
- Legegintzaldiaren hasieran, eten egin zuen LPSaren aldaketaren tramitazioa eta LPSaren aldaketa berri bati ekin dio, legez kontra (zabortegi berri bat aurreikusten du Osinbeltzen, Zestoan, foru arauaren kontra...).
- Ez da hasi idazten proiektuak eta, jakina, ustez burutu nahi zituen azpiegituretarako (aurretratatamendua eta Zestoa) baimenak tramitatzen ere ez da hasi.

Horrenbestez, hainbat jarduketa egin beharrean gaude berehala, informazioa konpartituz eta erabakiak denon artean eta denok batera hartuz; azken baten, konpromiso hauek hartu behar ditugu:

1. Hondakinen arazoa behin betiko konpondu behar dugu, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren aldetik iraunkortasuna emango duten irizpideen arabera.
2. Behar izanez gero, Plana Garatzeko Dokumentua eguneratu behar dugu, eta, horretarako, gaikako bilketaren, prebentzioaren, birziklapenaren eta berrerabilpenaren inguruko helburuak eguneratuko ditugu. Foru Gobernuak prebentzioa eta birziklapena hondakinak gestionatzeko politiken ardatz bihurtuko ditu eta birziklapen cluster bat sustatuko du, non ordezkatuak egongo diren materialen birziklapenarekin diharduten entitate publikoak, enpresa pribatuak, zentro teknologikoak eta unibertsitateak, materialak berreskuratuz eta aplikazio berritzaileak bilatu eta, hala, balio erantsi handiko industria bat garatzeko asmoz.
3. Aztertu behar ditugu aurkeztutako errekursoak juridikoki eta ebazpen judizialen ondorioak/itzulgarritasuna.
 - i. Zubietako ABEEarekin kontratua suntsitzea
 - ii. Austriako ingeniarietza bati nahierara eginiko adjudikazioa.
 - iii. Epaia errekurtoa “swap”-en inguruan.
 - iv. Egungo Gobernuak 2015eko maiatzaren 19an onartutako “Plana” (Plana Garatzeko Dokumentura egokitzeko asmoz onartutakoa omen da), indarrean dagoen foru arauaren kontra.

4. Kontuan hartuz Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren indarraldia 2016an amaitzen dela, bidezkoa dela uste dugu dokumentua ebaluatzea ikusteko zenbateraino bete eta garatu diren markatutako helburuak eta aurreikusitako azpiegiturak.

5. Inbentario zehatz eta eguneratu bat egin behar dugu hondakinen, joan-etorrien eta kostuen zifren inguruan. Besteak beste, eguneratu eta kontuan izan behar dira, baita ere, hondakin industrialak, komertzialak, instituzionalak eta antzekoak eta araztegiak hondakin uren lohia, baldin eta ur kontsozioen eta mankomunitateen aldetik lohi hori gestionatzen ez bada. Lurrean gaika bildutako materia organikotik sortutako ongarriaren eta konpostaren benetako erabilera eta komertzializazioa bermatu behar dira eta, horretarako, egokiak izan behar dute Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra Garatzeko Dokumentuan aurreikusitako azpiegiturak.

6. Lizitatu eta adjudikatu behar dugu hondakinen eta behar diren araztegiaren inguruko prognosi eguneratu bat egiteko estudioa.

7. Erraustegia eraiki egin behar dugu, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrean aurreikusten dena edo, aipatutako prognosiak dioena kontuan hartuta, azpiegituren beharrei buruzko aurreikuspen berriaren arabera.

8. Irekitzeko txipa daukan 5. kontenedorea (marroia) ipintzen lagundu behar dugu, materia organikoa aparte botatzeko, gehien eta ondoen bereizten duena saritzeko, betiere udalerrietan hondakin bilketaren inguruan erabaki lezaketen errespetatuz.

9. Osinbeltz eta Sasieta irekitzeko / berriro irekitzeko espedienteak geratu eta itxi egin behar ditugu.

10. Hondakinen Azpiegiturei buruzko LPS egokitu/aldatu egin behar dugu, kontuan hartuz aurreikusten diren plantentzako kokaleku berrientzat dauden beharrak: transferentzi plantak, biometanizazioa...

11. Ingurumen baimen integratua behar dugu:

i. Egoera aztertu behar da, GHK-k egungo baimena baliogabetzeko eskatu eta gero.

ii. Aztertu behar da emandako baimenak eta epeak ikusi eta instalazioak aldatu/mugitu behar diren ala ez.

12. Behin-behineko eta aldi baterako konponbideak bilatu behar ditugu hondakinen gestioaren inguruan, betiere behin betiko azpiegiturak gauzatzen badira.

13. Auditoria bat egin behar dugu: kontabilitatea, finantzaketa eta arlo teknikoa aztertzeko (TMB eta Epeleko konposta), juridikoa (ebatzi gabe eta hasi gabe dauden auziak) eta kontratazioa aztertzeko.

14. GHK-aren organigrama eguneratu behar dugu, eta baita Kontsortzioko ordezkariak ere. Teknikoak ez ziren arrazoiengatik kaleratutako teknikari onak berriro kontratatzea. Foru Aldundiaren ordezkariak izendatzea eta, segituan, gaur egungoak ordezteak. Arintzea udalek mankomunitateetan eta mankomunitateek Hondakin Kontsortzioko Batzarrean izaten dituzten ordezkarien izendapena.

GIZARTE POLITIKA

Helburu bera dugu: gure hiritarren gizarte babesaren bermatzea eta ereduak eta zerbitzuak hobetzea. Horretarako, beharrezkoak dira oso epe luzerako estrategiak prestatzea, gure gizarte ongizatearen sistema iraunkorra izan dadin, kontuan hartuz biztanleriaren alderantzizko piramideak dakarkigun erroka demografiko handia, jaiotze tasa txikia eta biztanleriaren zahartze prozesua. Dena den, gaur egungo foru gobernuak eginahalak eta bi egin ditu Gipuzkoako Lurraldean lehendik zegoen gizarte zerbitzuen ereduak aldatzeko eta, horrela, gizarte zerbitzu guztiak zuzenean gestionatzeko, kontuan hartu gabe ematen diren zerbitzuen kalitatea.

Foru Gobernu berri honek ez du urrats bat bera ere atzera egingo gure Lurraldean gizarte ongizateko politiken aldeko apustuan eta, premisa hori argi izanik, uste dugu beharrezkoa eta premiazkoa dela hainbat erabaki adostea ondorengo gai hauen inguruan:

1. Entitate laguntzaileen konfiantza berreskuratzea eta koordinazioarako mekanismoak ezartzea, Lurraldean beharrezko dauden pertsonak detektatzeko eta behar duten laguntza emateko. Prestazioen eta zerbitzuen kalitate mailari eustea, dauden baliabideak optimizatzeko aukerak aztertzeko konpromisoa batera hartuz.

2. Foro Iraunkor bat sortzea, hirugarren sektorearekin hitz egiteko/koordinatzeko, Gipuzkoako gizarte babesaren ereduak hobetzeko asmoz eta, etorkizunera begira, biztanleriaren piramideak eta neur daitezkeen proposamen zehatzak aztertzeko eta horien inguruko prospekzioak egiteko eta, azken baten, zahartzearen desafio handiari aurre egiteko.

3. KABIA organismo autonomo berriaren helburu nagusia izango da udalen zahar egoitzak bere gain hartzea; bere helburua ez da izango, inolaz ere, hirugarren sektoreak gizarte zerbitzuetako hainbat arlotan egiten duen lana ordezkatzeko.

4. Gizarte zerbitzuen arloan egin gabe dauden inbertsioak bultzatzea programa baten bidez, erabili daitezkeen aurrekontuaren arabera: azpiegitura berriak, leku aldaketak eta/edo itun berriak. Hori guztia lortzeko inbertsioen dekretua berrindartzea.

5. Gipuzkoako udalekin berriro koordinatzen hastea. EUDELen bitartez, eta Gobernu Kontseiluak udalekin ia batere hitz egin gabe 2015eko ekainaren 2an onartu zuen Gizarte Zerbitzuen Mapa aztertzea. Gizarte zerbitzuen estratifikatzeak ezinbestekoa egiten du Gipuzkoako udalekin buruz buru lan egitea, eta are beharrezkoagoa da hori kontuan izanik Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak udalen esku uzten duela prebentzio politikak garatzeko erantzukizuna. Legea Gipuzkoan garatzea negoziatzea, ahalik eta eraginkortasun eta efizientzia gehien bilatuz.

6. Sektoreko eragileekin batera I+G+I politikak bultzatzea gizarte zerbitzuen arloan; pertsona helduei ahalik eta denbora gehien beren ingurunean bizitzen jarraitzea bermatzea, segurtasun eta bizi baldintza hoberenetan, gure pertsona helduek ahalik eta autonomia gehien izan dezaten.

7. Zahartzeari buruzko Ikerkuntzarako Zentro Nazionalaren (ZIZN) egitasmoa bultzatzea, Gobernu Zentralarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Donostiako Udalarekin batera.

8. Zahartzaroaren eta minusbalotasunaren arloetan eredu aurreratuenak eta berritzaileenak aplikatuko dituen erreferentziazko zentro bat Gipuzkoan bultzatzea, eredu horiek, ondoren, sistema osoan zabaltzeko, bai etxebizitzetan eta bai zahar egoitzetan.

9. Tratu txarren biktima diren emakumeei eta horien seme-alabei laguntzeko plan integral bat prestatzea.

10. Hitzarmen sektorial bat onartzen ahalegintzea Gipuzkoako gizarte zerbitzuen inguruko politiken arlorako, Foru Aldundiaren interbentzionismoa saihesteko eta halako hitzarmen batek negoziazioetarako eskatzen duen autonomia kolektiboaren printzipioa zaintzeko.

11. Laguntza plan estrategikoak prestatzea eta martxan jartzea, minusbalia duten pertsonentzat eta gizarte bazterketa egoeran dauden edo egoteko arriskua duten pertsonentzat.

12. Foru aurrekontu bateratuaren %0,7rako bidean aurrera egitea, lankidetzeta eta garapen politiketarako.

KULTURA ETA EUSKARA

Gure iritziz, kultura gizartearen eraldatzeko palanka bat da, eta baita gizarte aldaketak gestionatzeko tresna bat ere. Krisialdi batean bizi gara, gizarteko arlo guztietan. Eta testuinguru horretan, gure programak proposatzen du gure nortasun anitza indartzea eta zaintzea ahalbidetuko duten lerroak lehenestea, garai

berrietara egokitzeko. Gure politika kulturalen oinarri izan behar dute eraldaketa, bizikidetzeta, kosmopolitismoa, eztabaida demokratikoan sakontzea, balioetan hezte eta industria kulturalak sustatzea.

Kulturaz hitz egiten dugunean ez gara hitz egiten ari bakarrik ikuskizunez, jardueraz eta aisialdiaz; hitz egiten ari gara, baita ere, hainbat ideia proposatzeko gai den orotaz, hain zuzen ere gizartea eraldatzeko, ekonomikoki inplikatzeko, itxaropenak sortzeko eta hiritarrak, beren partaidetzaren eta inplikazio aktiboaren bidez, baloratzeko ideiak proposatzeko gain den guztiaz.

Kultura arloa oso azkar eraldatzen ari den garaian bizi gara. Aro digitala iritsi da eta erabat aldatu dira kultura sortzeko, hedatzeko eta kontsumitzeko moduak. Ezin gara eszenategi berri honetatik kanpo geratu.

Hori guztia, argi dugularik partekatzen dugun kultura eta hizkuntza propioak ez direla horma hobi batean jarri eta gurtu beharreko ondare funtsak bakarrik; aitzitik, motorrak dira aldaketa eta dinamismorako, erakartzeko, bereizteko, errotzeko eta indartzeko. Herri batek historia bat dauka, bere harrietan eta irudimenean metatzen dena. Baina, komunitate horrek etengabe berrasmatzen aritu beharra dauka, eta beti bere ondare kulturalarekin elkarriketan.

Gipuzkoako hurrengo foru gobernuaren eginkizunak izan behar dute prozesuetan bitartekari lanak egitea eta prozesuak ahalbidetzea eta sortzea, argi dugulako kultura ardatz nagusi duen politika publikoa mesedegarri izango zaiela ekonomiari, dibertsitateari eta, azken baten, gizarte osoari.

Koalizioko Foru Gobernu honen helburua da kultura eta egitasmo kulturalak Gipuzkoaren garapenerako benetako motor bihurtzea. Kulturak ez ditu bakarrik gure pentsatzeko, bizitzeko eta jarduteko moduak erakusten, benetako palanka ere bada, gure bizitza kolektiboa bultzatzeko, garatzeko eta hobetzeko. Hurrengo legegintzaldian, lehentasunez helduko diegu Gipuzkoan dauden zortzi kultura egitasmo handi hauei:

1. Tabakalera martxan jarriko dugu, Euskadin liderra izango den kultura sorkuntzarako nazioarteko zentro gisa; ikus-entzunezkoen arloan espezializatutako zentroa izango da, hedapenarekin eta kontsumoarekin zerikusia duten elementuak erabiliz eta euskarazko edukietan arreta berezia ipiniz. Arteleku/Kalostra Tabakalera kultura egitasmoan txertatuko dugu berriro. Ez du ez bururik ez hankarik Arteleku Tabakalera zentrotik bananduta mantentzea, Arteleku izan baitzen hain zuzen ere Tabakaleraren hazia, arima eta motorra. Arte zinematografikoaren arloan maila handiko prestakuntza programa bat Tabakaleran antolatzearen aldeko apustu ere egingo dugu. Gradu eta graduondoko proposamen akademiko bat, batik bat ikus-entzunezkoen industriei begira, betiere industri horiek Euskadin tradizionalak, ospetsuak eta ezagunak badira. Goi Eskola hau antolatzeko, ezinbestekoa izango da administrazioaren, unibertsitatearen eta sektore pribatuaren parte-hartzea, horretarako erreferente nagusia Basque Culinary Center delarik.

2. Foru Aldundia Europako Kultur Hiriburuaren antolaketan inplikatu da —hiru hilabete baino ez dira geratzen egitasmoko ekitaldiak hasteko---, Donostiako Udalari dagokion lidergo naturala errespetatuz,

udalari bururatu zitzaiolako eta udalak bultzatu zuelako irabazle irten zen hautagaitza. Nolanahi ere, Foru Gobernuak hasierako ideia defendatuko du: gertaera paregabe hau baliatzea, fokua eraldaketetarako motor den hiritarren energian eta bizikidetzaren kulturari ipintzeko.

3. Erakundeen arteko konfiantza berreskuratzea eta lankidetzaren leialerako talde sendoa antolatzea Udalaren, Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean.

4. Donostiako Zinemaldiarekiko lankidetzaren indartzea.

5. Kulturako BEZa itzultzea: agintzen dugu hiritarrei eta industria kulturaleri itzuliko diegula kulturako BEZaren tasa orokorra %21era igotzeagatik bildutako gehiegizko dirua. Alde horren zati bat kulturaren kontsumoa piztera bideratuko da, Gabonetako kanpainan ateratako kultura bonoen bidez, eta beste zatia abangoardiako kultura egitasmoak diseinatzera eta martxan jartzera bideratuko da.

6. Euskararen erabilera sustatzea egunero-egunero izaten diren hartu-eman ez formaletan. Izan ere, euskararen inguruko ezaupideak komunikazio esparru ez formaletara eramateko izaten den zailtasuna da azterketa soziolingüistikoek nabarmentzen duten ohartarazpenetako bat. Horregatik, euskara modu naturalean transmititzeko programak landuko ditugu eta, batez ere, gazteen artean euskara erregistro eta esparru ez formaletan erabiltzea indartzeko balioko duten programak.

7. Gipuzkoako Kultura Kontseilua martxan jartzea, organismo horretan parte hartuko dutelarik kultura arloko iritzi eta diziplina anitz eta desberdinetako adituek eta profesionalek. Horiek beren irizpidea sei hilabete behin deituko den foro batean azalduko dute eta irizpide hori erabakigarria izango da Lurraldeko kultura politikak diseinatzekoan eta foru aurrekontuetan kultura arlorako partidak izendatzekoan.

8. Espazioak modu kreatiboan berreskuratzeko programa garatzea.

MUGIKORTASUN AZPIEGITURAK

Gipuzkoak mugikortasunaren inguruko ikuspegi konpartitu bat behar du, eredu integral bat, mugikortasun iraunkor, arin eta efiziente batera eramango gaituena, garraio publikoa eta ibilgailu pribatua konbinatuz, eta gizarte eta lurralde kohesioa, lehiakortasun ekonomikoa eta bizi kalitatea bermatuko dizkiguna. Horretarako, bultzatuko dugu, batetik, garraio publikoaren eskaintza hobetu, koordinatu eta optimizatuko duen mugikortasun eredu; bestetik, garraio azpiegituren gestio adimenduna, mugikortsuna iraunkorrera eramango gaituena; eta azkenik, ibilgailu pribatuen erabileraren optimizazioa. Horrez gain, Gipuzkoa pasaerako lurraldea da, aukerak ematen dituen espazioa da alde horretatik, eta faktore hori aprobetxatu egin behar du, dituen ahalmen logistikoak indartzeko eta gure bide sareak eta gainerako garraio azpiegiturak finantzatzen laguntzeko.

Datorren legegintzaldira begira, konpromiso hauek hartzen ditugu:

1. Edukiera handiko errepideen “Gipuzkoako biribilgunea” amaitzea, falta den zatia burutuz: Antzuola-Bergara (5 km). Deskargan ordainlekua ipiniko balitz, eskualdeko oreka bultzatuko genuke errepideen finantzazioak eskatzen duen esfortzuari aurre egiterakoan.
2. Irun eta Etxegarateko ordainleketan matrikulak irakurtzeko eta kobratzeko sistema bat ezartzea, Gipuzkoatik pasaeran doazen kamioientzat bakarrik, aurrez ziurtatuta juridikoki bideragarria dela, Euroviñeta Zuzentaraua eta aplikatu daitezkeen gainerako legeria kontuan hartuz. Gipuzkoa jatorri edo helmuga duten kamioiek Etxegarateko kilometroengatik bakarrik ordainduko lukete.
3. Aurreko bi neurriek, gertatzen ari den trafikoaren gehikuntzarekin batera, BIDEGIren nahikotasun finantzarioa sendotuko dute epe ertain-luzera. Horregatik, agintzen dugu hileko tarifa finkoari eutsiko diogula. Neurriak hartuko ditugu mugikortasunaren gestio adimenduna aplikatzeko; peaje sistema erabiliko da, ibilgailu pribatuen okupazioa sustatzeko eta bideen sarea ez betetzeko.
4. Eraikitzen jarraitzea bai Irungo Hegoaldeko Ingurabidea, Irunerako sarbideak hobetzeko, bai Azkoitia-Urretxu bidea.
5. N-1 eta AP-8 modernizatzeko egin beharreko obrei ekitea.
6. Donostialdeko metroa bultzatzea. Horretarako, epe luzerako inbertsioen estrategia bat prestatuko dugu, 2030ean garraio publiko metropolitanoaren sare handi bat izan dezagun, trenbidezko bi garraio sistemetan (RENFE eta Euskotren) oinarriturik. Horrek guztiak lagundu egingo du trenbidearen Donostiako zatiaren eta Loiola auzoko trukagailuaren estazioaren inbertsioari aurre egiten (trukagailuaren estaziorako, ADIF-i parte-hartzeko eskatuko zaio).
7. Gogotsu parte hartzea abiadura handiko trenaren Donostiarako sarbidea diseinatzen.
8. Trenbidez eta garraio publiko bidezko lotura hobetzea Donostia-Baiona Eurohiriaren korridorean.
9. Ingurumenaren foru departamentutik legegintzaldi guztirako jardueren kronograma bat diseinatzea, Gipuzkoako txirrindularien bideei buruzko Lurralde Plan Sektoriala garatzeko.
10. Gipuzkoako Garraioaren Agintaritzan negoziatzea garraio publikoarentzako tarifa finko iraunkor bat. Gipuzkoako Garraioaren Agintaritzak eskumen gehiago bereganatu beharko ditu, bera baita Lurraldeko garraio publikoaren eskaintza guztia koordinatzen duen koordinatzaile nagusia.

11. Jarraitzea Hondarribiko aireportuaren aldeko apustuarekin, hainbat hobekuntza proiektu bultzatuz Ortzibia sustapen sozietatearen bitartez.

PASAIALADEA SUSPERTZEA

Oarsoaldea eskualdeak eta, zehatzago esanda, Pasaia udalerrriak hamarkadak daramatzate erakundeen arteko adostasunaren zain, etorkizunean konponbideak egon daitezen zona suspertzeko betidanik dituzten arazoak konpontzeko. EAJ-PNVk eta PSE-EEK ideia bera dugu: ezin da galtzen utzi legegintzaldi honek eskaintzen digun aukera elkarrekin akordioetara iristeko eta lidergoa izateko eta, era horretan, Lurraldeak konpondu gabe daukan asunto hau behingoagatik konpontzeko. Horregatik guztiagatik, Foru Gobernu hau konprometitzen da:

- Pasaia Portuko Agintaritzarekin hartu-emanak berreskuratzea. Gure ikuspegia da badian bateragarri egitea portuari ematen zaizkion erabilerak eta hirigintzako erabilerak, epe laburrean hobekuntzak eginez La Herrera eta San Pedro arteko espazioan. Erakundeen (Espainiako Gobernuaren, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Pasaia eta Lezoko udalen) arteko, behin Jaizkibia desagertu eta gero, lankidetzarako finantzaketa izango delarik eta jarduketetarako kronograma bat egongo delarik.
- Pasaia-Irun plataforma multimodal logistikoa —lehen, Lezo-Gaintxurizketa esaten zitzaion— bultzatzea, erakundeen arteko hitzarmen baten bidez, Espainiako Gobernua eta Eusko Jaurlaritza inplikaraziz eta fasekako kronograma baten arabera.
- Pasaia konpentsazio ekonomiko bat aitortzea, Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren bidez, bere berezitasunari erantzuteko.

GOBERNU ONA

Gipuzkoako gizarteak eskatzen ari da konpartitutako lidergoa duten gobernua ahalbidetzea eta, horretarako, ezinbestekoa da presentzia aktiboa indartzea eta gipuzkoarrekin eta horien beharrekinekin konektatzea. Era berean, beharrezkoa da konbinatzea gardentasuna, lan pedagogikoa eta garrantzi soziala duten neurriak. Gure asmoa da sektoreei entzuteko kanalak eta mekanismoak ezartzea eta, horrez gain, berritzea eta sistematizatzea barne gestio dinamikak, egiturak eta tresnak, irizpide berritzaileen arabera.

Hori guziaz betetzeko, ezinbestekoa dela uste dugu gestio publikoko tresna giltzarriak etengabe modernizatzeko prozesu bati ekitea, eraginkortasun, efizientzi eta iraunkortasun ekonomiko eta, azken baten, erakundeen gobernagarritasuna xede duten gestio eredu berriak aplikatuz.

Eskaera hori kontuan izanik, gure egitasmoa printzipio hauen arabera garatuko dugu:

1. EZAUGARRIAK: Gobernu Oneko politikak gure ezaugarri bihurtzea.
2. GARDENTASUNETIK KONFIANTZARA: Erabateko gardena izatea eta gardentasunez jokatzeko, konfiantza izan dadin herritarren, klase politikoaren eta erakunde publikoen arteko hartu-emanen oinarri.
3. LANKIDETZA ETA KONPROMISOA: Herritarren parte-hartzea eta konpromisoa indartzea, herritarrak, agente sozialak eta asoziazionismoa erabakitzeko prozesuen protagonista bihurtzeko eta, azken baten, denen artean sortutako jardura publikoaren bidean aurrera segitzeko.
4. IREKIERA: Kontuak ematea benetan, publikoak azertu ditzan gobernu eta zerbitzu publikoak, hau da, gizartea izan dadin horiek guztien gainbegiratzailea.
5. ETENGABEKO BERRIKUNTZA ETA EKINTZAILTZA: Ekintzailtza eta berrikuntza sistematikoki sustatzea, gobernatzeko eta zerbitzuak emateko moduei dagokienez, modu horiek irekiagoak izan daitezen eta edozein politikaren emaitza balio publikoa izan dadin.
6. OINARRI ETIKOA: Jokabide etikoa zaintzea gestioa publikoaz arduratzen direnek egiten dituzten kontratazioetan, proiektu garapenetan eta eguneroko lanean.
7. INFORMAZIOETIK EZAGUTZARA: Datu publikoen (Open Data) irekiera benetan ahalbidetzea, informazioa ezagutza behar bezala bihurtu dadin, herritarren bizi kalitatea hobetzeko.
8. LIDERGO KONPARTIKTUAK: Sustatzea eta ahalbidetzea lankidetzako publiko-pribatutik sortzen diren sinergia guztiak eta Foru Aldundiaren eta udalen presentzia gure ingurune hurbilean Gobernu Ona dela-eta sortzen diren aukeragune guztietan.
9. ANTOLAKUNTZA EREDU BERRIAK: Argi eta garbi transbertsalitatearen eta burokrasia soiltzearen aldeko apustua egitea, erabakiak hobeto hartzeko eta herritarrekiko arreta hobetzeko; eta gestioa arintzea, helburuen araberrako kalitate eta gestio sistemak aplikatuz, denen arteko hartu-emanak, gertutasuna eta efizientzia hobetzeko.
10. HARREMANEZKO ETA ADOSTASUNEZKO GOBERNUA: Aurrera egitea bi ezaugarri hauek dituen gobernu izatera iristeko bidean: herritarrekin eta agente sozialekin hartu-emanak izateko bideak irekitzea eta teknologia berriak erabiltzea, partaidetza, debatea eta eztabaida oinarri dituen gobernantza ereduak garatzeko.

Azken baten, gardentasuna, eraginkortasuna eta hiritarren inplikazioa ezinbestekoak dira Gobernu Ona aplikatzeko. Alde horretatik, konpromiso zehatz hauek hartzen ditugu:

1. Agenda publiko garden bat ezartzea.
2. Urtero egutegi bat prestatzea, legegintzaldian zehar burutuko diren parte-hartze eta kontsulta prozesu nagusien inguruan, indarrean dagoen partaidetzarako foru araua kontuan hartuz.
3. Gestio plan gardena eta eraginkorra prestatzea, politika publikoak garatzeko, ebaluazio sistema eta guzti, eta plana uneoro kontsulta ahal izango dute hiritarrek.
4. Hiru hilean behin hiritarrei kontuak azaltzea, GUZTION GIPUZKOA txostenaren bitartez. Txostenean, azalduko da Foru Gobernua gestio plana nola garatzen ari den eta hartutako erabaki eta gauzatutako jardura nagusienak.
5. Foru Aldundia legegintzaldirako plan estrategikoaren arabera antolatzea.

Eranskina: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN PROGRAMA ETA ERAKETA HITZARMENA OSATZEN DUTEN NAHITAEZ BETE BEHARREKO AKORDIOAK

I

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN BARNE FUNTZIONAMENDURAKO OINARRIZKO AKORDIOAK

Akordio hauek sinatu dituzten alderdiek, EAJ-PNVk eta PSE-EEk (PSOE), alegia Foru Aldundiko gobernua osatzen dutenek, gobernu-jardueretan elkarrekin zintzo jokatu dute eta foru gobernuan hitzarmenak batera landu eta adostuko dituzte. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundian koordinazioa ziurtatzeko mekanismo zehatz batzuk jarriko dira. Irizpide desberdinak edukiz gero, elkarrizketaren bidez jarrerak hurreratu eta adostuko dituzte, eta, ados ez jarriz gero, desadostasunak II. ataleko zortzigarren arauan aipatu Segimendu Batzordean jorratuko dira.

II

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN GOBERNU JARDUERA BABESTEKO PARLAMENTUKO ELKARLANERAKO AKORDIOAK

Akordio hauek sinatu dituzten alderdiek Gipuzkoako Foru Aldundirako (10. legealdia, 2015-2019) adostutako gobernu programa onartu dute (dokumentu hau programaren osagarria da), eta parlamentuan, Batzarreko taldeen bitartez (Eusko Abertzaleak eta Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak) programa babestuko dutenaren hitza eman dute.

Horretarako, arau hauek zehaztu dira:

Lehena. Akordio hauek sinatu dituzten alderdiek, alegia EAJ-PNV eta PSE-EEk (PSOE), 'Eusko Abertzaleak' eta 'Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak' batzar-taldeen bitartez, foru gobernu Kontseiluak onartutako foru arauen proiektuak babestuko dituzte Batzar Nagusietan.

Proiektu normatibo horietarako zuzenketak proposatuz gero, Batzarreko bi taldeen eledunek sinatuko dituzte; alde horretatik, Batzarreko aipatu bi taldeek ezin dituzte aldebakarreko zuzenketak aurkeztu.

Batzarreko oposizioko kideek zuzenketarik aurkeztuz gero, 'Eusko Abertzaleak' eta 'Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak' taldeek elkarrekin adostu behar dute onartzea edo bideratzea.

Bigarrena. Zuzendaritza politikoko ekimenei (ebazpen proposamenei eta mozioei) dagokienez, 'Eusko Abertzaleak' eta 'Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak' batzar-taldeek aurkezpena eta edukia adostu egin behar dituzte.

Batzarreko oposizioko taldeek aurkeztutako zuzendaritza politikoko ekimenei (ebazpen-proposamenei eta mozioei) dagokienez, 'Eusko Abertzaleak' eta 'Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak' batzar taldeek ekimen horien gaineko jarrera adostu egin beharko dute. Halaber, oposizioak aurkeztutako zuzendaritza politikoko ekimen horien zuzenketak aurkeztu eta bideratzeko, aipatu bi taldeek ados jarri behar dute. Batzar Nagusiek Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren urteko lan programaren gaineko lehentasunak adierazteko prozeduran ere arau hori bera bete behar da.

Hirugarrena. Foru Aldundia kontrolatzeko ekimenak aurkeztu nahi izanez gero (informazio eskariak, ahoz edo idatziz erantzun beharreko galderak, interpelazioak, agerpen-eskariak eta abar), 'Eusko Abertzaleak' eta 'Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak' batzar taldeek ados jarri behar dute.

Laugarrena. Batzorde Bereziak sortzeko eta hitzaldiak emateko, 'Eusko Abertzaleak' eta 'Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak' taldeek ados jarri behar dute. Batzarreko gainerako kideek egin ditzaketen sorrera eskarien gaineko jarrera ere adostu egin beharko dute aipatu bi taldeek.

Bosgarrena. Batzar Nagusietan arau, zuzendaritza eta kontrol ekimenen inguruan sortzen diren eztabaidetan, 'Eusko Abertzaleak' eta 'Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak' batzar taldeen ordezkari gisa esku hartzen duten batzarkideen adierazpenek bat etorri behar dute foru gobernua eta gobernu programa babesteko irizpideekin eta hitzarmen hau sinatu duten alderdi politikoen arteko jarrera zintzoarekin.

Seigarrena. Foru gobernua osatzen duten Batzarreko taldeak etengabe komunikatu eta koordinatuko dira, akordio hauek behar bezala betetzea ziurtatzeko. Horretarako, koordinazio mekanismo zehatzak ezarriko dira.

Zazpigarrena. Irizpide desberdinak edukiz gero, elkarriketaren bidez jarrerak hurreratu eta adostuko dira, eta, ados jartzea ez lortuz gero, desadostasunak Segimendu Batzordean jorratuko dira.

Zortzigarrena.

a) Akordio hauek kontrolatzeko Segimendu Batzorde bat sortuko da. Batzordeburua diputatu nagusia izango da, eta batzordekideak hitzarmena sinatu duten alderdietako gobernakide bana, 'Eusko Abertzaleak' eta 'Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak' batzar taldeetako batzarkide bana eta akordio hauek sinatu dituzten alderdi politikoen zuzendaritzako kide bana.

b) Segimendu Batzordea hiru hilez behin bilduko da, akordio hauek sinatu dituzten bi alderdietakoren batek hala eskatuta, akordioak zenbateraino betetzen diren aztertzeko eta sor daitezkeen desadostasunak ebazteko; hori, akordio hauen I. atalean eta II. ataleko zazpigarren arauan zehaztutakoari jarraikiz.

Markel Olano Arrese
Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos

Denis Itxaso González
Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

